

## **Gipuzkoako enpresek Europar Batasunetik kanpo egiten dituzten esportazioetarako agirien kopurua %14 hazi da**

---

Donostia - 2016ko Uztailaren 7a

Europar Batasunetik kanpo egindako esportazioek gora egiten jarraitzen dutela adierazten dute Gipuzkoako Bazkondeak urteko lehen sei hilabetetan igorritako esportaziorako agiriei.

Merkantziaren jatorria bermatzen duten esportazioetarako agiriei eta esportatutako produktuak bidaliko diren herrialdean erabili ahal izateko egokiak direla egiaztatzen duten agiri hauen izapideak %14 hazi dira lehen seihilekoan. Enpresei dagokionez, esportaziorako agiriak eskatu dituzten gipuzkoako enpresen kopurua %7,1 hazi da 2015eko datuekin alderatuz, 681 enpresa izatera iritsi dira.

Herrialdeei dagokionez, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak, India, Txina, Aljeria, Kuba eta Turkia dira Gipuzkoako enpresak gehien jotzen duten herrialdeetara. Nahiz eta azkenaldian Gipuzkoako enpresentzat ohikoak ez diren lurraldeetara esportatu ahal izateko agiriak eskatzen direla ikusten da, hauen adibide Armenia, Benín, Burkina Faso, Ghana, Moldavia, Reunión, Zimbabue, Bahamas eta Samoa besteak beste.

Nabarmentzekoa da ere aldi baterako esportazioen igoera, ATA koadernoaren igoera, %35 hazi da lehen seihilekoan. Aldi baterako esportazioak kanpoan egin behar diren instalazioak, makinaren baten abiaraztea edo antzekoak egiteko eraman behar den material profesionalarekin batera dijoazten agiriak dira hauek, oso erabiliak ere feria komertzialetan gure enpresek erakusteko makinaria eraman behar dutenean.

Datu hauen guztien bitartez, gure enpresak kanpora ateratzeko joerarekin jarraitzen dutela ikusten da, gipuzkoako enpresak nazioartekotzean murgilduta jarraitzen dutenaren adierazle hain zuzen.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347